




PAZKOKO TXITATXOA



LIBURUAREN FITXA

Géraldine Elschner/Alexandra Junge. *Pazkoko txitatxoa*. Alberdania, 2005

AURKEZPENA

Oilategi batean Hilda oiloak 21 egunez errun du arrautza. Kezkatuta agertzen da Hilda, denbora hori pasa ondoren bere txita arrautza-oskoletik ateratzen ez denean. Txitarik ez, baina haren ahotsa ateratzen da oraindik pitzadurarik gabeko oskoletik. Pazko eguna arte ez omen du jaiotzeko. Noiz da pazko eguna, ordea? Hontzak dakizki denboraren kontuak. Hainbeste egun pasa beharko dira udaberria baino lehenago. Hortik aurrera, ilargi betearen zain egon behar omen da. Denbora kontatzen hasten dira: egunak eta gauak, hilabetea: ilargi bela, ilargi betea iritsi den arte. Festa handia egiten da pazko egunean, eta egun horretan jaiotzen da gure txita xelebrea.

KONTAKETA

- Herrialde askotan Pazko egunak ospatzeko lorategietan ezkutatzen dituzte kolorez margoturiko arrautzak. Horietako batzuk txokolatezkoak dira, beste batzuk gogorak, beste zenbaitetan opari txikien ondoan gordetzen dituzte...
- Txitatxoa oso berezia zen: jaiotzeko zuen festa egun horretan, bere jaioteguna denekin batera ospatzeko.
- Denbora oso poliki pasatzen da, ordea...
- Irudiak ikusi ipuina irakurri eta kontatu.

PROPOSAMENAK LUZATZEN

- Denok izan nahi dugu bereziak, denen onarpena, festaren erdian egotea. Zein da zure festa maiteena?
- Denbora kontatzeko moduak. Egutegia: hilabetea, astea, astegunak... Ilargiaren bilakaera eta mugimenduak... urtaroak...



PROPOSAMENAK ZEHAZTEN

- Marraztu zure urtebetetze egunean, etxean egin dizuten festa. Argizarizko margoak erabili horretarako.
- Ilargiaren epeak margotu eta izenak ikasi. Noiz izango da ilargi betea?
- Nahi dugunean jaiotzen al gara?